



EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN

HAUTESKUNDE ARAUDIA

Euskal Mendizale Federazioaren Batzar Nagusiak 2008ko maiatzaren 10ean eta 2012ko apirilaren 21ean aldatua, eta Zuzendaritza Batzordeak zuzendua 2012ko ekainarek 7an



XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Araudi honek EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusia eratzeko eta Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko erregimena arautzen du.

Bertan zehaztu gabekoak Euskal Herriko Kirolari buruzko Legean, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, berau garatzeko hauteskundeen gaiaren inguruan ezarritako xedapen guztietan, eta Federazioaren Estatutuetan adierazitakoari jarraituz arautuko dira. Horretaz gain, Administrazio Prozeduraren araudi orokorra eta Euskal Herrian indarrean dagoen hauteskunde erregimen orokorra eta berezia ere hartuko dira oinarritzat araudi honetan zehazten ez dena arautzeko.

2. artikulua. Hauteskundeak lau urtean behin egingo dira, udako olinpiar jokoen ospakizun urteekin bat etorriz, eta, betiere, eskumena duen administrazio publikoak horretarako ezarritako hauteskunde aldian.

3. artikulua. Botoa, librea, zuzena, berdina eta isila izango da.

4. artikulua. Hauteskunde erroldan agertzen diren datuen tratamenduak eta azalpen publikoak, eta baita hauteskunde prozesuan jasotako datu guztienak ere, botoa emateko eskubidea bermatzea izango dute helburu bakartzat, eta ezin izango dira beste inolako xedetarako erabili edo laga.

Hauteskunde ekitaldi guztiak (hautagai zerrendak aurkeztea, ekintzak aurkaratzea, bozketak, etab.) federazioaren egoitza operatiboan egingo dira, Vitoria-Gasteizen, Amadeo Garcia de Salazar plazako 2. zenbakian, 2. solairuan, jendaurrerako ordutegiaren barnean.

Dena den, datuak babesteari dagokionez, eskumena duen eta indarrean dagoen legeak ezarritakoa aplikatuko da.

HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIA

5. artikulua. Lurralde federazioetako Batzar Nagusiak berritu ondoren edo horretarako legeak ezarritako epea igaro ondoren, Euskal Mendizale Federazioko Lehendakariak erakunde honetako hauteskundeak garatzeko beharrezkoak diren izapidetzeak hasiko ditu, hauteskundeetarako dagokion deialdia eginez, eta jarduneko izaeraz eraturako da.

Hauteskunde prozesuaren deialdia eta erabaki eta agiri guztiak jendaurrean jarriko dira EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) eta lurralde federazioen lokaletan, eta EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) webgunean ere argitaratuko dira, interesdunei edo administrazio publikoari egin beharreko jakinarazpenen kalterik gabe.

Kirol federazioetako kide guztiek hauteskunde prozesuari buruzko informazio nahikoa jaso dutela eta dagozkien eskubideez baliatzeko aukera dutela bermatu beharko du Hauteskunde Batzordeak.

6. artikulua. EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) jarduneko Lehendakariak bilera deia egingo dio Hauteskunde Batzordeari, dagokion hauteskunde prozesuari hasiera emateko.

Hauteskunde prozesua hasi ondoren, Lehendakariak eta Zuzendaritza Batzordeak beren kargua utziko dute, eta jarduneko izaera hartuko dute.

BATZARRAREN ERAKETA

7. artikulua. Batzar Nagusiko kideen kopuru osoa zehaztuko du Hauteskunde Batzordeak, eta hark zehaztuko du hiru lurralde federazioetako estamentu bakoitzari Euskal Federazioaren batzarrean dagokion ordezkari kopurua, lurralde estamentu bakoitzak dituen lizentzia kopuruaren eta guztizko kopuruaren arabera, Estatutuetan xedatutakoa betez. Euskal Federazioaren errolda hiru lurralde federazioetako errolden batura da.



Dena den, estamentu bakoitzak lurralde federazio bakoitzeko ordezkari bat izango du gutxienez, lurralde federazio baten Batzar Nagusian estamentu batek ordezkari ez duenean salbu.

Ezbairik gabe, ordezkarien esleipenaren berri emango zaio lurralde federazio bakoitzari, eta horren berri emango da publikoki, 5. artikuluan zehaztutako bideak erabiliz.

8. artikulua. Lurralde federazioetako batzarrek bozketak egingo dituzte bertako kideak aukeratzeko, eta horiek izango dira EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) batzarreko kideak, federazioko Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiarekin bat etorrituz.

9. artikulua. EMFko (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) batzarreko kide izateko aukeratuak izan diren lurralde batzarretako ordezkariak, nahitaez, lurralde federazioetako Batzar Nagusietako kide izan behar dute.

10. artikulua. Lurralde federazioek beren ordezkarien hautaketaren berri emango diote Hauteskunde Batzordeari, horretarako zehaztutako epean, eta EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Batzar Nagusiko kide izendatuko dira.

11. artikulua. Klub eta kirol taldeen estamentuari esleitzen dakioto boto haztatua zehaztuko du Hauteskunde Batzordeak, betiere, irizpide hauen arabera jokatu:

- a) Hauteskunde prozesua hasi den denboraldiaren aurrekoan 400 federazio-lizentzia baino gehiago izapidetu dituzten klubak eta kirol elkarten kasuan, bakoitzari hiru boto esleituko zaizkio.
- b) Hauteskunde prozesua hasi den denboraldiaren aurrekoan 150 federazio-lizentziatik 400era bitartean izapidetu dituzten klubak eta kirol elkarten kasuan, bakoitzari bi boto esleituko zaizkio.
- c) 15 lizentzia baino gehiago izapidetu dituzten klubak eta kirol elkarten kasuan, bakoitzari boto bat esleituko zaio.
- d) Klubak eta kirol elkarten estamenturako irizpide horien arabera kalkulatu diren botoen batura osoak Batzar Nagusiko boto guztien % 90 gaituzten badu, esleitutako botoak murriztu egingo dira, bi eta hiru boto esleitu zaizkien eta federazio-lizentzia gutxien dituzten klubak eta kirol elkarteak txandaka boto bat kenduz, adierazitako ehuneko horretara iritsi arte.

HAUTESKUNDE BATZORDEA

12. artikulua. Euskal Mendizale Federazioko Hauteskunde Batzordea da hauteskunde prozesua bultzatu eta behar bezala gauza dadin ardura izango duen kide anitzeko organoa.

13. artikulua. Hauteskunde Batzordeko kideak Batzar Nagusiko kideak boto eskubidea duten Federazioko kideen artean proposatu dituzten pertsonen artean aukeratuak dira bozketak bidez; proposatutako kideak batzarrera bertaratuak diren botoen bi heren lortu behar dituzte. Aukeraketa egiterakoan boto gehienak lortzen dituztenak izango dira titularrak, eta boto kopuru gutxiak lortzen dutenak ordezkariak izango dira, boto kopuruaren arabera.

Postuak betetzeko behar adina hautagai ez badaude edo ezarritako gutxienezko boto kopurua lortu ez badute, falta diren hautagaiak zozketa publikoan izendatuko dira klubak eta kirol elkarten artean, boto-haztapenaren arabera.



Lehendakaria eta Idazkaria beren artean aukeratuko dituzte, eta izendapena edo aukeraketa egiten den artean kideetako adin handienekoak beteko du Lehendakari postua, eta adin txikienekoak Idazkari postua.

Hautagaiek ez dute inolaz ere Hauteskunde Batzordean parte hartuko; izendatutako Hauteskunde Batzordeko kide bat hautagai izateko aukeratzen bada, kargua utzi beharko du, eta bere postua ordezkioak beteko du.

Hautatutako pertsonak kargua onartu beharko dute. Salbuetsita eta ardura izatetik libre geldituko dira lan, familia, ikasketa eta osasun arrazoiengatik edota antzeko arrazoi batzuegatik bere funtzioak egoki betetzeko gai ez direnak.

Hauteskunde Batzordeko agintaldiak lau urte iraungo du, baina Batzar Nagusiak edo Kirol Administrazioak bertako kideak kargutik kendu ahal izango ditu eta beste batzuk izendatu, agintaldia amaitu baino lehen.

Kargutik kendutako Hauteskunde Batzordeak jardunean jarraituko du batzorde berria izendatu arte.

14. artikulua. Hauek dira Hauteskunde Batzordearen betebeharrak:

- A) Hautesleen errolda eta hauteskundeetako egutegia onartzea.
- B) Aurkezten diren hautagaiak onartzea, izendatzea eta argitaratzea.
- C) Hauteskunde Mahaia izendatzea.
- D) Hautetsiak izendatzea.
- E) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak eta eskaerak ebaztea, eta baita Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekursoak ere.
- F) Hauteskundeei buruzko araudia interpretatzea eta arautu gabe dagoena nola arautu erabakitzea.
- G) Agiri ofizialak onartzea: botoa emateko txartelak, kartazalak, hautagai zerrendetarako inprimakiak, eta antzeko dokumentuak.
- H) Federazioaren egoitza ez diren lokaletan hauteskunde ekitaldiak egitea baimentzea.
- I) Egindako galderei erantzutea.
- J) Hauteskunde prozesuarekin lotuta diziplinako arau-haustea adieraz dezaketen ekintzak jakinaraztea diziplina epaileari.
- K) *Hauteskundeak egiteari eta hauteskundeko emaitzei zuzenean eragiten dien edozer gai.*

15. artikulua. Batzordeko bi kide bertaratzea nahikoa izango da bilera eratzeko.

Erabakiak hartzeko botoen gehiengoa lortu beharko du Hauteskunde Batzordeak. Berdinketa gertatzen bada, Lehendakariaren botoa kalitateko boto gisa hartuko da, eta boto hori nagusituko da.

Gehiengoaren botoaren aurkako botoa emanez gero, boto hori eman duena edozer erantzukizunetik salbu geldituko da, boto arrazoitua bada eta bilerako aktan horrela adierazi bada.

16. artikulua. Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakiak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta 5. artikuluan aurreikusitako moduan emango dira ezagutzera.

Hauteskunde Batzordeak lehen instantzian hartzen dituen erabakien aurka errekurtsioa jar daiteke Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean bi laneguneko epean, erabakia jakinarazten edo, hala badagokio, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Errekurtsioaren inguruan Hauteskunde Batzordeak hartutako ebazpenaren aurka ere errekurtsioa jar daiteke Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, zazpi laneguneko epean.



Larrialdietan, eta betiere harrera bermatuta dagoenean eta kideek berariaz hala onartzen dutenean, bere erabakiak posta, posta elektronikoa, fax, pc-konferentzia, bideokonferentzia eta antzeko beste baliabide tekniko batzuen bidez jakinarazi ahal izango dira. Hala erabakiko balitz, Batzordeko Idazkariak, federazioko administrazio zerbitzuen laguntzarekin, dagokion akta idatziko du, eta aktarekin batera jasoko dira jatorrizko eskutitzak, faxak eta antzeko dokumentuak.

Bilera bakoitzeko akta egingo da, eta Hauteskunde Batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute.

HAUTESKUNDE MAHAIA

17. artikulua. Batzar Nagusian Hauteskunde Mahaia eratuko da bozketarako. Hauteskunde Mahaia hiru kidek osatuko dute. Hauteskunde Batzordeak Batzar Nagusian bildutako kideen artean zozketa eginez aukeratuko ditu Hauteskunde Mahaia osatuko duten hiru kideak. Zozketan aukeratuko dira, halaber, hiru ordezkioak ere. Hauteskunde Mahaiko inork ezingo du Lehendakarietzarako hautagaia izan. Hautagaiek ezingo dute Hauteskunde Mahaiko kide izan eta, zozketan hala egokituz gero, bertan behera utzi beharko dute mahaia; horrelakorik gertatzen bada, ordezkioak hartuko du hutsik gelditutako lekua.

Hauteskunde Mahaiko Lehendakaria eta Idazkaria zaharrena eta gazteena izango dira, hurrenez hurren.

Hauteskunde Mahaiak erabakiak gehiengo soilez hartuko ditu, eta berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren botoa nagusituko da. Gehiengoaren botoaren aurkako botoa emanaz gero, eta botoa arrazoitua bada, boto hori eman duena edozer erantzukizunetik salbu geldituko da.

Hauteskunde Mahaiko erabakiak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta Euskal Federazioko eta lurralde federazioetako iragarkien tauletan argitaratuko dira.

Hauteskunde Mahaiak hartutako erabakien aurka egin ahal izango da Hauteskunde Batzordearen aurrean, bi laneguneko epean

Hauteskunde Mahaiko erabakiaren errekursoaren inguruan Hauteskunde Batzordeak hartutako ebazpenaren aurka ere errekursoa jar daiteke Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, zazpi egun naturaleko epean.

18. artikulua. Hautagaiek kontu-hartzaileak izenda ditzakete edo beraiek kontu-hartzaile lanetan aritu daitezke Hauteskunde Mahaiaren aurrean.

19. artikulua. Hona hemen Hauteskunde Mahaiaren eginkizunak:

- A) Bozketak behar bezala egin daitezen neurriak hartzea.
- B) Bozketan parte hartu behar dutenak zeintzuk diren eta benetan horretarako eskubiderik duten egiaztatzea.
- C) Emandako botoen balioari buruzko erabakiak hartzea.
- D) Bozketak bukatu ondoren botoak zenbatzea.
- E) Bozketaren inguruko beste edozein gairi buruzko erabakia hartzea.

20. artikulua. Hauteskunde Mahaiko Idazkariak idatziko du akta. Aktan honako hauek jasoko dira: bertaratutako hautesle edo boto-emaile kopurua, bozketako gorabeherak, horien ondorioz adierazitako errekursoak, emandako baliozko botoak, boto baliogabeak, eta boto zuriak.

Lehendakariak, Idazkariak eta batzordekide batek sinatuko dute akta, eta Hauteskunde Batzordera igorriko da, ahalik eta azkarren, baliogabeko botoekin eta aurkaratutakoekin batera.



LEHENDAKARIA ETA ZUZENDARITZA BATZORDEA HAUTATZEA

21. artikulua. Euskal Mendizale Federazioko Lehendakariak Federazio honetako Batzarreko kide izan behar du edo pertsona juridikoa den baten ordezkaria.

Euskal Mendizale Federazioko Lehendakaritza bateraezina da Klub edo Kirol elkarte bateko Lehendakaritzarekin, edota Federazioko Batzarreko kide den pertsona juridikoarekin. Lehendakaritzarako hautatuz gero, aurrez zuen kargua utzi beharko du, eta Federazioko Lehendakari kargua beteko du soilik.

Euskal Mendizale Federazioko Lehendakaritza bateraezina da Klub edo Kirol elkarte bateko ordezkartzarekin edota Federazioko lizentzia duen pertsona juridiko baten ordezkartzarekin. Lehendakari izateko pertsona juridiko baten ordezkaria hautatuz gero, ordezkari izateari utzi beharko dio.

22. artikulua. Lehendakaritzarako eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaien zerrenda idatziz aurkeztu beharko da beti, hautagai guztien eta bakoitzaren izena eta abizenak, NAN zenbakia eta lizentziak adieraziz; horrez gain, hautagai bakoitza zer kargu edo funtziotara aurkezten den zehaztu beharko da; zehaztasunik ematen ez bada, zerrenda burua lehendakari kargurako aurkezten dela ulertuko da. Horrekin batera, eta hala dagokionean, batzarrean pertsona juridiko baten ordezkaria dela adierazten duen egiaztageria aurkeztuko da.

Lehendakariari eta Zuzendaritza Batzordeko kideei Estatutuetan berriro hautatuak izateko ezartzen zaizkien denbora eta agintaldi mugak zehazteko orduan, ez da kontuan hartuko bi urtetik beherako agintaldia. Horrez gain, lurralde federazioetako lehendakariak berezko kide gisa EMFren (EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA) Zuzendaritza Batzordeko kide izan diren aldiak ere ez dira kontuan hartuko.

23. artikulua. Hautagaiak aurkeztu ondoren, Hauteskunde Batzordeak beren onarpenari buruzko ebazpena emango du, zazpi eguneko epean.

BATZARRAREN GARAPENA

24. artikulua. Hauteskunde Batzordeak deituko du batzarrera, Hauteskunde Egutegian finkatutako datan; eta honako Gai Zerrenda izango du:

1. Batzarra eratzea.
2. Hauteskunde Mahaia eratzea.
3. Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea hautatzea.

Batzarra lehenengo deialdian eratuko da kideen gehiengo bertaratzen bada; bigarren deialdian, nahikoa izango da kideen herena bertaratzea.

25. artikulua. Batzarra biltzen denean, Hauteskunde Mahaia eratuko da berehala.

26. artikulua. Hautagai zerrenda bakarra izanez gero, ez da beharrezkoa izango inolako bozketarik, eta besterik gabe, zerrenda horretako hautagaiak izendatuko dira Lehendakari eta Zuzendaritza Batzorde.

Hautagai zerrendarik aurkezten ez bada, Hauteskunde Batzordeak hautagaiak aurkezteko epea irekiko du berriz ere. Bigarren epe hori igaro ondoren, zerrendarik aurkezten ez bada, Hauteskunde Batzordeak horren berri eman beharko dio jarduneko Lehendakariari, Federazioa deuseztatzea erabakitzeke Ez ohiko Batzar Nagusirako deialdia egin dezan.

27. artikulua. Batzarraren bilera hasitakoan, Lehendakaritzarako eta Zuzendari Batzorderako hautagaien aurkezpena eta hautaketa egingo da



Botoen gehiengoa lortzen duena izango da hautatua, emaitzen ehunekoen arabera.

Bi hautagai aurkezten diren kasuetan, boto gehiengoa lortzen duena izango da hautatua, emaitzen ehunekoen arabera; bi hautagai baino gehiago aurkeztuz gero, bozketa bi itzulitara egingo da. Lehenengo itzulian hautagaietako inork botoen gehiengo osoa lortzen ez badu, bigarren bozketa bat egingo da. Bigarren bozketa horretan lehenengo bozketan boto gehien lortu dituzten bi hautagaiak soilik izango dira hautagarri.

Txartel bakoitzean zerrenda bateko hautagaiei eman ahalko zaie botoa soilik. Mahaiak botoak zenbatuko ditu, eta gehiengoa lortu duen zerrendako kideak izendatuko dira Euskal Mendizale Federazioko Lehendakari eta Zuzendaritza Batzordeko kide.

Boto kopuruen berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hirugarren eta azken bozketa bat egingo da. Azken bozketa horretan hautagaiek berriz ere berdinketa lortzen badute, Hauteskunde Batzordeak bozketa bat egingo du hautagai horien artean.

28. artikulua. Lehendakaria eta Zuzendaritza Batzorde berria izendatuta, honek zuzenduko ditu batzarreko debateak, hautaketaren inguruan Hauteskunde Batzordearen aurrean aurkeztu daitezken erreklamazioen kalterik gabe.

29. artikulua. Hauteskunde Mahaiak hogeita lau orduko epean igorriko dio akta Hauteskunde Batzordeari, eta honek hiru egunen buruan emaitzak argitaratuko ditu.

Emaitzen aurkako helegiteak edo aurkaratzeak aurkeztu ahal izango dira Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, zazpi egun naturaleko epean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bakarra. Agintaldian zehar sortzen diren bajak Lurralde Batzarrean ordezkatzeko dituztenek ordezkatu dituzte.

Arrasaten, 2012ko ekainak 8

Idazkaria

Presidentea

Maria Belen Dominguez

Alvaro Arregi